

GAIZKI ERRANKA

Mapak



SANTI LEONÉ

Beharbada lehenago izanen ziren, baina hauteskundeak ailegatzearekin batera erreparatu diet nik sare sozialetan. Mapak. Espainiako mapak hain zuzen ere, hauteskundee-tako emaitza orokorrak edo alderdi jakin batek izandakoak erakusten dituztenak. Bi koloretan izaten dira normalean: kolore batek Galizia, Hego Euskal Herria eta Katalunia hartzen ditu, eta bigarrenak, Estatuko gainerako lurraldeak. "Hego Euskal Herria" idatzi dut, baina zenbaitetan EAE izaten da; are gehiago, tarteka hirugarren kolore bat gehitzen dio Nafarroak irudiari; eta "Katalunia" idatzi dut, baina horren etiketapean Printzerria ulertu behar genuke, maiz Valentziak eta Balear Uharteek Espainia espainolaren kolorea hartzen baitute.

Ikusi dudan hondarreko mapak, adibidez, Voxen emaitzak erakusten zituen: boto kopuru ttikiena aipatu hiru herrialde horietan –Nafarroa eta EAE bat eginik honetakoan, Valentzia eta Balear Uharteak Espainia aldera lerratuak– lortu baititu. Bertze mapa zenbait bezala, honek ere hausnartzeko gonbidapena zekarren. Aski hausnarketa gidatua: zeinek eman dion botoa faxismoari eta zeinek ez, eta, ondorioz, gora gu eta gu bezalako demokrotak.

Bertzelako irakurketak ere posible dira, nire ustez. Adibidez, Espainia "jokoan" dagoen tokietan, eskuin espainolistak bada-kiela pragmatiko jokutzen, eta hark baino indar handiagoa bil-tzen duten bertze aukera unionista batzuei ematen diela botoa. Bertzalde, Vox ez da gorrotoaren adierazpen bakarra, platafor-ma digitaletako zenbait erantzunetan ikusten den bezala.

Datueta oinarritzen diren heinean, mapa horiek zer pen-satua eman beharko liguketen tresnak dira. Baina helburua baldin bada zeinen onak garen erakutsiz plazera ematea, or-duan alferrik ari dira datuak biltzen. Onanismoarako aukera eraginkorragoak eskaintzen ditu sareak aspalditik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



"BI ABORTU IZAN NITUENEAN, PETRONOR ZALANTZAN JARTZEN HASI NINTZEN"

SARA IBAÑEZ, MEATZALDEA BIZIRIK TALDEKO BOZERAMAILEETAKO BAT

Ibañezen hitzetan, hasieran ziurtzat jotzen zuten findegi batek segurtasun neurri guztiak ondo beteko zituela eta kontrolaturik zutela, "baina Petronor zalantzan jartzen hasi nintzen bi abortu izan nituenean, bata 1992an, eta emaginak esan zidan haurdun geunden emakume guztiek aldi berean abortatu genuela. Ezin da aurkitu kausa-efekturik, baina 35 urtez eskualdeko emakumeen osasuna kontrolatzen igaro ondoren, beti izan dut susmoa, baita datuak ere, osasun arazo gehiago ditugula".

HOR DAGO-EL SALTO (2019/05/28)

